

SARRERA

Lan Harremanak aldizkariaren monografiko honek 2013ko irailaren 19an eta 20an Bizkaia Aretoko Mitxelena Auditorioan egindako «Gizarte inklusioa lortzearen erronka» jardunaldietan aurkeztutako hitzaldiak biltzen ditu. Jardunaldiok, Sartu Federazioak eta UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolak antolatutakoak, Euskal Autonomia-Erkidegoan gizarte- eta lan-inklusioren eremuan aritzen den Sartu Federazioaren 25. urteurrena ospatzeko egin ziren.

25 urte horietan, Sartuk guztira 100.764 pertsoneri eman die arreta, eta erdia baino gehiago Sistema Publikoetako Gizarte eta Enplegu Zerbitzuetara eratorriak izan dira. 15.000 enplegu baino gehiagoren, 16 gizarte- eta inklusio-enpresen eta 1.200 auto-enplegu lanpostuen sorreran parte hartu du. Pertsonekin lan egin du, beren gaitasunak eta autonomia garatzen, baina gizarte eta ekonomia eremuan ere jardun du, taldeko garapenaren ikuspegitik, eta hori bereziki nabarmena da krisiak eta sistema ekonomikoak gizarte-ehuna desegiten ari diren une honetan.

Kalteberak diren pertsonen inklusioa bultzatzeak eragileak behartzen gaitu pertsonen eta inguruneen beren eskura dituzten baliabide guztiak berrikuntzan, metodologietan, ikuspegietan hedatzen laguntzera. Gainera, krisia hasi zenetik, desberdintasuna, langabezia eta baztertzea erritmo eta sakontasun handiarekin hazi dira, eta gizarte desegituratzearen arriskuaren aurrean gizarte-ezinegona oso handia da.

Inklusio-politika, bateratua eta zuzena izan nahi duen gizarte-proiektuaren muina izan beharko litzateke, bertan, pertsonak erdigunean egonik, izaera integrala izango duen gizarte-inklusioko eredia garatu ahal izateko.

Lehenengo artikuluan, Iñigo Lamarca *Arartekoak* gizarte-eskubideen bermeak botere publikoen eginbehar juridikoa dela defendatzen du, eta horren ondorioz, administrazio guztiak gizarte-eskubideen babesa eta jasangarritasuna ahalbidetuko duten ekonomia, zerga eta gizarte politikak aurrera eraman behar dituztela.

Jarraian Ximo García Rocak bere artikuluan krisiaren zentzu klasikoa berreskuratzea proposatzen du, jaiotza eta sorrera berrien denbora gisa, etika izanik al-daketa horien funtsezko oinarria. Bazterturik dauden pertsonen begietatik ikusitako etika, gizabanakoaren eta taldearen adorea, sentikortasun politikaren eta elkarren artean banatutako erantzukizunaren inguruan eratu beharko litzateke.

Ondoren, Alfonso Duboisek Ongizate Estatuaren bideragarritasun ezaren diskurtsoaren aurrean, hiru gogoeta plazaratzen ditu. Lehenik eta behin, inklusioaren ahuleziaren substratu den desberdintasunerako joeren gaur egungo ezau-garriak ezagutu beharra. Bigarren hausnarketak zuzentasun maila altuagoa eskatu ahal izateko ongizate kontzeptuaren eta bere inplikazioen inguruko egungo eztabaida jasotzen ditu. Eta azkenik, inklusioaren eskakizunaren definizio berria utziko duen pentsamendu alternatiboaren erreferentziak aurkezten ditu.

Aurrerago, Luis Sanzo Gonzálezek, Euskadin, bai langabezian bai eta pobrezian ere, atzeraldiak izan duen eragina aztertzen du bere lanean. Bere ustez krisiak Euskal Autonomia-Erkidegoan berezitasunak ditu eta agerian jartzen ditu pobrezia eta enplegu egonkorrera sarbidearen arteko lotura, gazteen problematika eta umeen pobrezia-enganako eragina, emakumearen prekaritate berezitua eta, bereziki, atzeritarren zailtasunak. Bere lanak, aldi berean, krisiaren dimentsio lurraldetarra eta bakardadea, baztertzea, errefusatzeta, pertsona mailako gatazkak, eta abar ikusgai jartzen ditu.

Jarraian Sandra Ezquerrak eta Mariela Iglesiasek gizarte kapital kontzeptuarekiko hurbilketa kritikoa egiten dute, generoaren ikuspegitik duen baztertze potentziala azpimarratuz, eta gizarte eta inklusio-politiken diseinuan horien aplikazio akritikoen arriskuak agerian jartzen dituzte. Egileek bereziki deskribatzen dituzte egungo krisi testuinguruan «komunitazioaren» eta «birretxeratzearen» gizarte-inklusioaren iturrien arriskuak.

Ana Arribak zenbait europar Estatutako gizarte inklusiorako eta inklusio aktiborako politiken edukiak eta baliabideak aztertzen ditu. Praktikan, gizarte inklusiorako politiken planteamenduen xede teoriko handinahikoa alde batera gelditu da egungo atzeraldi ekonomikoaren eta enplegu urritasunaren testuinguruan.

Joseba Zalakainek bere artikuluan gure inguruko Estatuetan gizarte-inklusioren eremuan garatzen ari diren politiken joera nagusiak identifikatzen eta deskribatzen ditu, bai eta ezagutzera eman ere eremu horretan funtzionatzen hasi diren zenbait praktika berritzaile.

Hurrengo hiru artikuluek, gizarte-inklusioko ikertzen ari diren zenbait unibertsitatearen eta hirugarren alorreko erakunderen lan-bilerak jasotzen dituzte.

Amaia Inza Bartolomé, Noemí Bergantiños Francok eta M.^a Jesús Rivera Escribanok beren artikuluan UPV/EHUko Gizarte Langintzako Unibertsitate

Eskolaren eta Gureak Arabaren arteko lan bat jasotzen dute, zeinetan ez gaitasunak dituzten pertsonekin elkar bizitzeak gizartean isla duten balioak sortzen dituela deskribatzen den, pertsona horiek bereganatzen duten protagonista papera azpimarratuz.

Hurrengo artikuluan, Juan Hernández Zubizarretak eta Ane Garay Zarragak UPV/EHUko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolaren eta Amerika Latinako Multinazionalen Behatokiaren (OMAL) arteko lankidetzak aurkezten dute, intzidentzia politikorako ikerketa-ekintzaren esperientzia gisa. Esperientzia horrek ahalbidetu du transnazional handien botereaz eta giza eskubideez ikertzea —analisi kritikoa, dokumentatua eta zehatza egiten da—, bai eta hedapen, gizarteratze eta intzidentzia politikoaz ere.

Lan-bilerekin amaitzeko, Natxo Martínezek eta Leire Álvarez de Eulatek, Txertatze-Enpresen laguntza prozesuetan Gizartearen, Gizarteratzeko eta Laneratze Euskadiko Enpresen Elkarteak, eta Deustuko Unibertsitatearen 10 urte baino gehiagoko lankidetzaren esperientzia aztertzen dute. Horri esker marko teorikoa zein parte hartzerako baliabideak indarberritu dira.

Azken bi artikuluek inklusioaren aldeko eragileen mahai-inguruko parte hartzeak jasotzen dituzte, eta horietan Gizarte-inklusioko inbertitzea: erronkak eta alternatibak dago aztergai.

Juan Ibarretzek, Enplegurako Prestakuntzaren eta Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentaren Zuzendariak, lan merkatuaren ikuspegitik Euskadiko egoeraren zenbait gakori ekiten dio, horretarako errekupeziaziorako zenbait zimentu ezarri, bai eta banandutako lidergoak sustatzen duten gobernantza ereduetatik abiatuz, lan merkatu txertatzaile eta gizarte inklusiboagoak printzipio eta balio gisa erronkak eta erantzunak aipatuz.

Amaitzeko, Carlos Askunzek, ekaIN-en (Euskadiko Gizarteratzearen aldeko Sareak) ordezkarietan, gizarte-inklusioko prozesuen ikuspegi integrala hartzeko beharra eta eredu zuzenagoa, elkartuagoa eta inklusiboagoa itxuratuko duten ekimen alternatiboak martxan jarri beharra planteatzen du. Gizarte esku-hartze alorreko ekintzak birpolitizatze eta horien funtzio mugikortzailea eta administrazioarekin zein beste gizarte-eragileekin solasaldia sendotzeko apustuaren alde egiten du. Azkenik, Gizarte-Inklusiorako Euskal Sistema martxan jarri beharra aldarrikatzen du.